

EUKALIPTO LANDAKETA BERRIETAN
LUZAMENDUAREN AURREKO KONTSULTA
PUBLIKOAREN IZAPIDEA

TRAMITE DE CONSULTA PÚBLICA PREVIA A LA
MORATORIA EN NUEVAS PLANTACIONES DE
EUCALIPTO

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala zaintzeko Sailak mendiei buruzko egungo Foru Arauan eukalipto-landaketa berrietan luzamendu bat sartzea bultzatzen du.

El Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural promueve la inclusión en la actual Norma Foral de Montes de una moratoria en las nuevas plantaciones de eucalipto.

a.- Arauketa berriaren bidez konpondu nahi den arazoa

2020an, Bizkaiko Lurralde Historikoko baso-azalera 131.676 hektareatan kuantifikatu zen, eta horietatik % 15,6 (20.506 hektarea) Eucalyptus generoko espezieek hartzen dituzte. 2020an Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari eskatutako birpopulatze-baimenen % 60 baino gehiago Eucalyptus espeziea landatzeko izan dira. Joera gero eta handiagoa da eta horrek desoreka sor dezake Bizkaiko lurraldeko baso-espezieen artean. Hori dela eta beharrezkotzat jotzen da luzamendua ezartzea.

a.- Problema que se pretende solucionar con la nueva regulación

En 2020 la superficie forestal del Territorio Histórico de Bizkaia se cuantificó en 131.676 hectáreas, de las cuales el 15,6% (20.506 hectáreas) están ocupadas por especies del género Eucalyptus. Más del 60% de las autorizaciones de repoblación solicitadas al Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural en 2020 son para plantación de especies de Eucalyptus. La tendencia es creciente y esto puede generar un desequilibrio entre las especies forestales del territorio de Bizkaia. Por lo expuesto, se ve necesaria la adopción de una moratoria

b.- Testu arauemailea onartzeko beharra eta egokitasuna

Basoen kudeaketa iraunkorraren helburua da baso-espezieen lurralde-banaketa orekatua izatea, ekoizpen eta babes-helburuekin, haien onura sozioekonomikoekin eta dagozkien zerbitzu ekosistemikoekin bateragarria izango dena (zuraren hornidura, habitat eta espezieei eustea, erregulazio hidrikoa eta klimatikoa, paisaia, aisia eta aisialdia, besteak beste).

b.- Necesidad y oportunidad de aprobar el texto normativo

La gestión Forestal Sostenible persigue una distribución territorial equilibrada de las diferentes especies forestales, compatible con los fines productivos y de protección, con sus beneficios socioeconómicos y correspondientes servicios ecosistémicos (abastecimiento de madera, sostenimiento de hábitats y especies, regulación hídrica y climática, paisaje, ocio, recreo, entre otros).

Horretarako, egokitzat jotzen da luzamendu bat sartzea Eucalyptus generoko landaketa berrietan, ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen arteko oreka zaintzeko beharrezkoak diren baso-antolamenduko tresnak onartzen diren bitartean eta dagokion araudia egokitzen den bitartean.

Con este fin, se considera oportuno incorporar una moratoria en las nuevas plantaciones del género Eucalyptus, en tanto en cuanto se aprueben los instrumentos de ordenación forestal necesarios para preservar un equilibrio medioambiental, económico y social y se adecúe la normativa correspondiente.

c.- Arauaren xedea

c.- Objeto de la norma



Aldi baterako erregulazioa, harik eta baso-antolamenduko tresnak onartzen diren arte. Horren bidez, aldi baterako debekatuko dira Eucalyptus generoko espezieen landaketa berriak.

d.- Planteatutako arazoari beste irtenbide arautzaile zein ez-arautzaile batzuk ematea..

Aurreko paragrafoetan azaldutako inguruabarrak direla eta, aldi baterako arauketa bat egitea beharrezkotzat jotzen da, eta ez da beste irtenbiderik ikusten Eucalyptus generoko espezieen egungo birpopulazte-joera bideratzeko

e.- Arau-proposamenak ukitutako helburu publikoak eta nortzuei zuzendu behar zaien

Foru Dekretuaren aurreproiektu honen erregulazioa Bizkaian ukituta izan daitezkeen sektoreei eta herritar guztiei zuzenduta dago, erregulazio horrek pertsonalki edo beren ondasunetan eragin edo onura izan dezakeen aldetik

Regulación transitoria, hasta que se aprueben los instrumentos de ordenación forestal correspondientes, por la que se prohibirán temporalmente las nuevas plantaciones con especies del género Eucalyptus

d.- Existencia de soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias al problema planteado.

Dadas las circunstancias expuestas en los apartados precedentes, la elaboración de una regulación transitoria se presenta como necesaria, sin que puedan apreciarse otras soluciones alternativas que sirvan para reconducir la actual tendencia de repoblaciones con especies del género Eucalyptus.

e.- Públicos objetivos afectados por la propuesta normativa y a quienes se debe dirigir

La regulación del presente anteproyecto de Decreto Foral está dirigida a los sectores afectados y al total de la ciudadanía de Bizkaia, como posibles personas afectadas o beneficiadas, personalmente o en sus bienes, por dicha regulación.